


# MEMORIA 2023





# AURKIBIDEA

<b>I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza .....</b>	<b>1</b>
Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera .....	2
Berdintasun Batzordea .....	2
<b>II. Jardun ildoak .....</b>	<b>3</b>
1. Prestakuntzan lortutako emaitzak .....	3
1.1. Ikasleentzako prestakuntza.....	3
1.2. A-Leader, TEKAZELko emakumeentzako programa .....	6
1.3. Online prestakuntza .....	7
2. Ikerketan lortutako emaitzak .....	10
2.1. UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa .....	10
2.2. Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria.....	11
3. Unibertsitate bizitza.....	12
3.1. UPV/EHUko Diagnostika eta Soldata auditoretza.....	12
3.1.1. UPV/EHUko Diagnostika.....	12
3.1.2. UPV/EHUko Soldata Ikuskaritza .....	12
3.2. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa.....	13
3.3. Protokoloa, pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzekoa.....	14
3.4. STEM graduak nesken artean sustatzeko batzordea.....	15
4. Unibertsitate hedakuntza.....	17
4.1. Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea .....	17
4.2. UPV/EHUko bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren Kontziliazio Gida.....	17
4.3. Berdintasunerako Zuzendaritzaren lankidetzaren hainbat proiektuetan .....	18
4.4. Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean.....	19
4.5. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan .....	22
5. Proiektuak eta eginkizunak.....	23



# I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

UPV/EHUK, unibertsitate publikoa den heinean, emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromiso irmoa du. Horrela adierazten du, besteak beste, Estatutuetako 4.3 artikulua: ***UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta dibertsitatearen errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rolak eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkartza parekatua.***

Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, 2006an, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako zuzendari kargua sortu ziren (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua), 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxan jartzera bultzatu baino urtebete lehenago. Zuzendaritza hori konprometitutako talde handi baten lanaren fruitu izan zen: gehienak emakumeak, eta euskal gizarteko eremu eta arlo desberdinetan aukera-berdintasuna lortzeko borrokan ibiliak. Zuzendaritza sortu zenetik asko izan dira aurrera eramandako ekintzak, batetik, zuzendaritzari berari esleitutako eginkizunak betetzeko, eta, bestetik, legetan zehaztutako helburuak betetzeko; gutzia unibertsitateko eremuan ezarrita.

Berdintasunerako Zuzendaritzak 2007an UPV/EHUko Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin zuen eta emaitza gisa unibertsitateko kolektiboen – ikasle, TEKAZEL eta IIP – egoera azalera zuen sexuka banatuta unibertsitateko esparru ezberdinetan.

Diagnostiko hori egin ondoren, unibertsitateak, 2009ko maiatzean, erabaki zuen UPV/EHUko Berdintasun Batzordea eratzea, bere eginkizun nagusia izanik UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Plana egitea, eta bertan zehaztea unibertsitateak bere jardunean berdintasunaren arloan izango zituen jarraibideak. Urte bete beranduago, 2010-2013 aldirako Berdintasunerako I. Plana behin osatuta, Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen kontseiluak onartzeko, eta, horrela, berretsi egin zen unibertsitateak genero berdintasunerako zeukan konpromisoa. I. Plana ezarri ondoren, 2014ko apirilaren 3ko erabakiaren bidez, UPV/EHUko Berdintasun Batzorde Intersektorialak (IRI eta TEKAZEL ko funtzionarioen eta lan kontratudunen negoziazio batzordeek osatuak) unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2014-2017) onartu zuen.

2019-2022 aldirako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plan honek, II. Planak bezalaxe, bat egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak zehaztutako filosofiarekin, horietan jasota baitago erakunde publikoek zein enpresek berdintasun planak egin behar dituztela indarreko arauetan zehaztutako helburuak betetzeko. Horrela, berdintasunerako III. Plan hau osatzeko lanean unibertsitateko Berdintasun Batzordeak, ikastegietako berdintasun batzordeek



eta Berdintasun Batzorde Intersektorialak hartu dute parte. Plana behar bezala garatzeko, bestalde, Emakunderen laguntza dauka 2018ko uztailaren 2an sinatutako hitzarmenaren bidez.

2023an IV. Berdintasun Plana (2024-2027) diseinatzeari ekin zaio, UPV/EHUko IV. planak aurrekoen filosofiarekin jarraitzen du, hau da, Euskadiko unibertsitate publikoa erreferente izatea gure lurraldean genero-berdintasunaren arloko ikerketan, transferentzian, prestakuntzan eta gizarte-kontzientziazioan (UPV/EHUko plan estrategikoaren kultura-ardatzaren eta gizartearen 4. helburua).

### Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

<b>Zuzendaria:</b> <b>Mendizabal</b>	<b>Elena Leïñena</b>	elena.leinena@ehu.eus	946012172
<b>Teknikaria:</b> <b>Arrizabalaga</b>	<b>Enara Agirre</b>	enara.agirre@ehu.eus	946018039
<b>Teknikaria:</b>	<b>Igone Martinez Alonso</b>	igone.martinez@ehu.eus	946018071
<b>Idazkaria:</b> <b>Hernández</b>	<b>Ana Isabel Ríos</b>	anaisabel.rihe@ehu.eus	946012171

### Berdintasun Batzordea

Maite Muñoz Garcia de Iturrospe	Arteen eta Giza Zientzien irakasle-ikertzailea
Aitor Urresti González	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Ana Isabel Puente Martínez	Zientzietako irakasle-ikertzailea
David Pastor Andres	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Naiara Agirregoitia Marcos	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Deñe Larrabeiti Mendikute	TEKAZELeko langilea
Julen Zabala Alonso	TEKAZELeko langilea

Era berean, UPV/EHUko ikastegi bakoitzean Berdintasun Batzorde bat dago.



## II. Jardun ildoak

### 1. Prestakuntzan lortutako emaitzak

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuetako bat, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezen sustatzea da. Horretarako, hainbat prestakuntza ikastaro diseinatu eta bultzatu ditugu unibertsitateko kolektibo guztientzat:

#### 1.1.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horretarako, 2023an, aurreko urteetan bezalaxe, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik sari hauek eman zaizkie UPV/EHUko ikasleei:

- **Genero ikuspegia gradu amaierako lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) 1.2.4. puntuari aurreikusitako ekintza betez, *Genero ikuspegia lantzen duten gradu eta master amaierako lanen garrantzia sendotzea Francisca de Aculodi eta María Goyri sariaren bidez*, alegia, UPV/EHUk Francisca de Aculodi sariaren VIII. ediziorako deialdia egiten du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

2023ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Francisca de Aculodi sariaren IX. edizioari sariak banatu ziren (2022an defendatutako GRALak) guztira 35 GRAL aurkeztu ziren. 2023ko udazkenean, aldiz, sariaren X. edizioari lanak aurkeztu dira, guztira 33, eta hauen epaia 2023 edo 2024an?? izango da. Hemen aurkeztutako GRALen banaketa:

AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LANAK		
	IX. EDIZIOA	X. EDIZIOA
Gizarte eta Lege Zientziak	22	21
Arte eta Humanitateak	7	7
Osasun Zientziak	3	5
Ingeniaritza eta Arkitektura	2	0
Zientziak	1	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>35</b>	<b>33</b>

Azken edizioetan ez bezala, azken edizioan ez da lanik jaso Ingeniaritza eta Arkitektura edota Zientzietan. Ikusten denez, esperru ez tradizioaletako partehartzea txikia izateaz gain oraindik ez dago finkatuta.



Ondorengo taulan ikus daitezke Francisca de Aculodi sariko IX. Edizioko sarituak:

<b>FRANCISCA DE ACULODI SARIKO VIII. EDIZIOKO SARIDUNAK</b>			
<b>Gizarte eta Lege Zientziak</b>	<b>Euskara</b>	<i>Emakumearen betebeharraren deklaratzeko dispentsa genero-indarkerien arloan</i>	Enara Tapia Larrakoetxea
	<b>Gaztelania</b>	<i>Violencia sexual en espacios de ocio nocturno: una propuesta de intervención socioeducativa</i>	Maria Lopez Morales
<b>Arte eta Giza Zientziak</b>	<b>Euskara</b>	<i>Hizkuntza baztertzailaren detekzioa Elhuyar hiztegian</i>	Eneko Sagarzazu Martínez
	<b>Gaztelania edo beste hizkuntza bat</b>	<i>Lubtschs Berliner jahre. Eine erweiterung des filmischen frauenbilds</i>	Alejandro Rodriguez Schnell
<b>Osasun Zientziak</b>	<b>Euskara</b>	<i>Generoaren araberako obesitatearen estigmatizazioa</i>	Miren Santos Erice
	<b>Gaztelania</b>	<i>Detección y actuación enfermera en mujeres víctimas de violencia de género</i>	Amaia Martínez Galdós
<b>Ingeniaritza eta Arkitektura</b>	<b>Euskara</b>	<i>Hutsik</i>	
	<b>Gaztelania</b>	<i>Analysis of the influence of sex in diagnostic classification of parkinson's disease on non-motor manifestations by means of machine learning methods</i>	Ander Barrio Campos
<b>Zientziak</b>	<b>Euskara</b>	<i>Hutsik</i>	
	<b>Gaztelania</b>	<i>Desmontando el mito: Diferencias cerebrales entre mujeres y hombres</i>	Cristina Arranz San Pedro

- **UPV/EHUko Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen Maria Goyri saria**

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) lan ildoetara jarraiki UPV/EHUk Maria Goyri sariaren XI. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.



<b>AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK</b>		
	<b>Guztira</b>	<b>Jakintza arloen arabera</b>
<b>X. Edizioa (2020/2021)</b>	16	12 Gizarte eta Lege Zientziak 2 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak 1 Ingeniaritza eta Arkitektura
<b>XI. Edizioa (2021/2022)</b>	11	8 Gizarte eta Lege Zientziak 1 Osasun Zientziak 2 Ingeniaritza eta Arkitektura
<b>XII. Edizioa (2022/2023)</b>	14	9 Gizarte eta Lege Zientziak 1 Osasun Zientziak 4 Arte eta Giza Zientziak

Ondorengo taulan 2023ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean saritutako lana:

<b>MARIA GOYRI SARIKO XI. EDIZIOKO SARIDUNA</b>	
<i>El enigma del sexo mercenario: identidades y praxis de los clientes de la prostitución</i>	Noelia Ponte Alonso

Azken edizio honetan berriz ere gorakada bat nabaritu da, bereziki esparru tradizionaletako masterretatik aurkeztuta. Hemen ere nabaritzen da esparru ez tradizionaletatik lanak aurkezteko zailtasuna.

- **LGTBI+ ikuspegia Gradu Amaierako eta Master Amaierako Lanetan barne hartzearen Empar Pineda saria**

UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) 4.2. puntuan aurreikusitako helbururantz aurrera egiteko ahaleaginean, "**Genero edo orientazioagatiko aniztasuna errespetatuko duen unibertsitate eremua bultzatzea**". Helburu hau betetze aldera UPV/EHUk Empar Pineda sariak antolatzen ditu eta 2023 urtean sari honen III. edizioko sariak banatu dira eta IV.en edizioa ere antolatu da. Sari honen helburua Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan LGTBI+ ikuspegia barne hartzen duten lanak balioestea da eta aniztasuna unibertsitatean ere aldarrikatzea.



AURKEZTUTAKO LANAK	
	Guztira
I. Edizioa (2019/2020)	10
II. Edizioa (2020/2021)	15
III. Edizioa (2021/2022)	11
IV. Edizioa (2022/2023)	9

Aurkeztutako lanetan jeitsiera bat antzeman bada ere, Empar Pineda sariak jada errotuta daude unibertsitatean eta LGTBI+ ikuspegiari identitate propioa eman ahal izan zaie GrAL eta MALetan.

EMPAR PINEDA SARIKO III. EDIZIOKO SARIDUNAK		
Euskara	<i>Queer diskurtsoak egungo euskal poesian: Arregi Diaz de Heredia, Borda, Eizagirre, Erro eta Olasagarreren poemak aztergai</i>	Aitana Perez Ortiz
	<i>Bollera bertsolarien bizipenak. Konplexutasunez beteriko oholtzaratzeak</i>	Maidar Arregi Markuleta
Gaztelania	<i>Consumo de drogas y salud mental en el colectivo LGTBIQ+</i>	Láin Díez López

### 1.2.- A-Leader, TEKAZELeko emakumeentzako programa:

Programa berri honekin UPV/EHUko Berdintasunerako zuzendaritzak aspalditik jasotako eskaera bati erantzun nahi dio: unibertsitateko IIP eta ikasle emakumeek euren espazio propio dute, hala nola ikasle mutilek; baina TEKAZEL emakumeentzako ez zegoen programa propio bat eta behar horri erantzuteko sortu da A-Leader programa. Asmoa TEKAZELeko emakumeen artean lidergoa sustatu eta, bereziki, gatazkak kudeatzeko erremintak ematea da. Horretaz gain, TEKAZELeko emakumeen artean ere saretzeko aukera eskainiko du programak.

Programaren eredia Akademetik hartu da eta Maru Sarasola bera izango da dinamizatzailea. Programaren lehen edizio pilotua Leioan egin zen 2023ko neguan eta 30 emakume inguruk izena eman bazuen ere 15 kideko taldea onartu zen eta 14k amaitu zuten programa. Partehartzaile guztien balorazioak oso onak izan ziren eta, hori dela eta, A-Leader programa hurrengo urteetan ere bultzatzen jarraitzeko asmoa dago UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzatik.





### 1.3.- Online prestakuntza

2023an ere online prestakuntzen eskaintza mantendu egin da eta Berdintasunerako Zuzendaritzatik bultzatutako ekintzak berrantolatzeke asmoarekin edizio bakarra ospatu da, udazkenean hain zuzen ere.

Ikastaroek arrakasta izaten jarraitzen badute ere, nabaria da euren arteko desoreka; Sexu-dibertsitatea edota Haurren aurkako sexu-abusuak ikastaroak egun gutxitan betetzen diren bitartean Maskulinitateak edo Hizkuntza inklusiboa ikastaroek harrera apalagoa izaten dute. Horretaz gain, nabaria da, baita ere, gizonezkoan parte harzte baxua edizio batean ere ez baita %20tik igotzen.

Formakuntza eskaintzari dagokionez, azken edizioetako ikastaro berberak eskaintzen dira, batzuk UPV/EHUrenak dira eta beste batzuk Emakunderekin elkarlanean:

#### **UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzakoak diren ikastaroak:**

- Hizkuntza inklusiboa
- Hezkidetzaren alde busti!
- Sexu-dibertsitatea
- Haurren aurkako sexu abusuak

Emakunderekin elkarlanean:

- Emakume eta gizonen berdintasuna
- Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak
- Emakumeen aurkako indarkeria

Uneotan eskaintza nahiko anitza bada ere ez da albora uzten aurrera begira hau indartu eta aberasteko asmoa. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburu nagusia formakuntza unibertsitate komunitatearen beharretara moldatzea da, gure komunitatea berdintasunean, aniztasunean eta indarkerien aurka formatzen jarraitzeko.

Aurtengo formazio ikastaroetan aipatu behar da bi jakintza arloko ikasleek eman dutela izena eta akreditatu direla bereziki, hau da, Medikuntza eta Erizaintzakoak batetik eta Psikologiakoak bestetik. Horrek esan nahi du zainketa fisiko zein psikologikoarekin zer ikusirik duten ikasketetako ikasleek nolabaiteko sentsibilizazio eta konzientziaioa dutela generoarekiko.




Online ikastaroen XI. Edizioa, 2023/2024 ikasturtea, bakarra

ONLINE IKASTAROA	IRAUPENA	ESKAINITAK OPLAZAK	IZEN-EMATEAK				ONARTUAK				AKREDITATUAK			
			E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA
<b>Emakume eta gizonen berdintasuna</b>	25 ordu	200	135	25	1	<b>161</b>	127	22	1	<b>150</b>	64	14	0	<b>78</b>
<b>Hizkuntza inklusiboa</b>	25 ordu	200	117	34	5	<b>156</b>	117	34	5	<b>156</b>	49	17	3	<b>69</b>
<b>Maskulinitateak</b>	25 ordu	200	108	25	1	<b>134</b>	108	25	1	<b>134</b>	55	12	0	<b>67</b>
<b>Sexu-dibertsitatea</b>	30 ordu	200	164	34	10	<b>208</b>	159	32	9	<b>200</b>	83	23	6	<b>112</b>
<b>Hezkidetzaren alde Busti!</b>	75 ordu	100	109	11	1	<b>121</b>	91	8	1	<b>100</b>	30	0	0	<b>30</b>
<b>Haurren aurkako sexu abusuak</b>	35 ordu	200	202	28	5	<b>235</b>	171	24	5	<b>200</b>	107	12	2	<b>121</b>
<b>Emakumeen aurkako indarkeria</b>	25 ordu	200	181	25	2	<b>208</b>	152	17	2	<b>171</b>	101	9	0	<b>110</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>1300</b>	<b>1016</b>	<b>182</b>	<b>25</b>	<b>1223</b>	<b>925</b>	<b>162</b>	<b>24</b>	<b>1111</b>	<b>489</b>	<b>87</b>	<b>11</b>	<b>587</b>
			%83'07	%14'88	%2'05		%83'26	%14'58	%2'16		%83'30	%14'82	%01688	



## IKASTAROETAKO AKREDITATUAK ZENTROKA BANATUTA





## 2. Ikerketan lortutako emaitzak

Hainbat azterlanek, UPV/EHUko ikerketen esparruan emakumeen eta gizonen parte hartzeari buruzko diagnostikoak (2007-2011) eta urtero UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ateratzen duen Berdintasuna zenbakitan txostenak egoera bera azaleratzen dute: ikerketetan desberdina dela emakumeen eta gizonen egoera. Horren arabera, dagozkion neurriak hartu beharko dira, berdintasunerako bidean aurrera egiteko.

Hori dela eta, arlo guztietan, emakumeek aurkeztutako tesien ehunekoa gizonena baino handixeagoa da, Ingeniaritzaren eta Arkitekturaren arloetan izan ezik, hori pixka bat txikiagoa baita (%48,7). Nabarmentzekoa da, halaber, Osasun Zientzien arloa, emakumeek aurkeztutako tesiak %60,2 dira.

UPV/EHUko berdintasunaren aldeko ekintza positibo bezala ikerketa proiektuetan bultzatzen den ekintza aipa genitzake, izan ere emakume gutxien ordezkatuta dauden arloetako ikerketa taldeetako proiektuei 2 puntu gehiago ematen zaizkie, Ikertzaile Nagusia emakumea bada.

Hala ere, UPV/EHUko diagnosiaren lehen azterketa batek mahaigaineratu duen emaitzaren arabera emakume IN gehienak KO-IN dira, hau da, ez dira eurak bakarrik IN. Kasuen %41ean, gutxienez emakume bat zegoen ikertzaile nagusi gisa (IN). Baina emakume bat (bakarrik) edo beste emakume bat lagun duten talde eta proiektuen datuak aztertzerakoan, portzentaia %25era jaisten da. Kasu honetan desoreka askoz garrantzitsuagoa da. Datu hauek ikusita adi egon beharra daukagu aurrera eramaten diren berdintasunerako politikak benetan eraginkorrak izan daitezen.

Erabilitako irizpidea edozein dela ere, ikusten dugu IN emakumeen presentzia askoz txikiagoa dela Ingeniaritzako eta Arkitekturako ikerketa-taldeetan, eta hori bat dator irakaskuntza-adar horretako IIPn dagoen maskulinizazio handiarekin.

Oinarri honetatik abiatuta, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo ekintzak jasotzen ditu:

### 2.1.- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko **AKADEME** programa

Berdintasunerako Zuzendaritzak, HELAZekin batera, **AKADEME** programa ezarri eta eskaintzen du 2015/2016 ikasturtetik, UPV/EHUko emakumezko akademikoen lidergoa bultzatzeko. Haren helburu nagusia emakume akademikoen lidergo



gaitasunak hobetzea da, eta parte hartzaileen arteko babes sare batean parte har dezaten sustatzea, non erantzukizuneko lanpostuetan sartzeko edo haietan irauteko ahalduntze kolektiboa motibatu eta sustatuko den. Orain arte Akademe programan 212 emakumek hartu dute parte.

Akademe programaren aldeko apustua urtetik urtera sendoagoa da unibertsitate mailan eta horren adierazgarri da programa burutu duten emakume askok ardura



postuak hartu izana (100 emakumek gutxi gora behera) edota hauetan denbora luzeagoan mantentzea.

## 2.2.- Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria

Ikerketan genero ikuspegia bultzatzeko, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III Planaren 2.1.2. - **Micaela Portilla Saria sendotzea (ikasketa feministei edo generoari buruzko UPV/EHUko tesi onenari ematen zaion saria)**- ekintza betetzearren, UPV/EHUK Micaela Portilla Vitoria Sariaren X ediziorako deialdia egiten du ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko UPV/EHUko tesi onenarentzat.

2023ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Micaela Portilla Sariaren X. edizioko saria banatu zen eta, saria sortu zenetik, urte hauetan zehar **47 hautagaitik gora aurkeztu dira.**

Micaela Portilla sariko azken irabazleak		
Edizioa	Tesia	Egilea
<b>VIII. Edizioa (2019)</b>	<i>La depresión y su recuperación. Una etnografía feminista y corporal</i>	Maria Zapata Hidalgo
<b>IX. Edizioa (2020)</b>	<i>Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografía bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak</i>	Miren Guillo Arakistain
<b>X. Edizioa (2021)</b>	<i>Transfeminismotik ekarriak haur hezkuntzara: Eskola identitateari buruzko kasu azterketak neoliberalismo garaian</i>	Irati Leon Hernandez
<b>XI. Edizioa (2022)</b>	<i>Irun eta Hondarribiko Alardeak eta genero ordena. Ikuspegi historiko bat 1993-2008</i>	Irati Bengoetxea Gartzia

## 3. Unibertsitate bizitza

### 3.1.- UPV/EHUko Diagnostia eta Soldata auditoretza

#### 3.1.1. UPV/EHUko Diagnostia

6/2019 lege errege dekretuak eta hori garatu zuten 901 eta 902 dekretuek jasotzen duten bezala, berdintasun plan berria proposatzeko eta onartzeko, lehendabizi erakundearen diagnostia egin behar da eta baita ere soldata auditoretza (ikuskaritza). Dokumentu hauek berdintasun plana osatzen dute, lerro estrategikoekin batera. Erakundeak, horretaz gain, erregistro erretributiboa ere eraman behar du urtero.

Hori dela eta, Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko IV. Berdintasun Plana egiteko eta martxan jartzeko, 2023an unibertsitatearen diagnostikoa eta soldata auditoretza aurrera atera ditu, 2024an aipatutako plana onartu eta martxan jarri nahian.

Diagnostia egina dagoenez, badakigu STEM gradu guztietan emakumeak ez direla iristen %40ra. Eta kopuru hori askoz txikiagoa da ingeniari eta arkitektura graduetan. Beraz, emakumezko ikasleak ikasketa horietara bideratu behar ditugula hurrengo urteotan, jakin badakigu.

Era berean, kontuan hartuta emakumezko gutxi ditugula katedretan (%27) eta irakasle osoen kategorietan (%20), hurrengo berdintasun planaren indarra emakumeen lidergo akademikoan eta beren ikerketak garatzeko kontziliazio neurrietan jarri behar dugu.

Lidergoa bultzatzea ez da bakarrik IIPkoen artean sustatu behar, baizik eta TEKAZELeko langileen artean. Izan ere, kolektibo feminizatua izan, goi mailako postuetan portzentaia jaitsi egiten da gizonen alde.

#### 3.1.2. UPV/EHUko soldata auditoretza

Egindako soldata ikuskaritzaren datuek ere, gainerako unibertsitateetan bezalaxe, segregazio horizontala zein bertikala dagoela gurean azaltzen dute.

Batez besteko soldata arrakala irakasle eta TEKAZELeko langileen artean %7 da. Irakasleen artean bereziki %7,4 da soldata orokorrean eta %3,9 oinarrizko soldatan. TEKAZELeko artean, aldiz, %4,6koa da soldata orokorrean eta %6,4 oinarrizko soldatan. Honen arrazoia bi kolektiboetan osagarrietan dautza. Osagarriek, bai ikerketarekin lotuta zein beste motatakoak, gizonetakoak onuragarriagoak dira emakumezkoentzat baino. Era berean, egiaztatuta gelditu da soldata arrakala 30-39 urtetako epealdian hasten dela emakumeen amatasuna eta zainketa baimen eskaerekin lotuta.



### 3.2.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa

2018ko ekainetik Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa indarrean da eta 2018ko abendutik Genero Indarkeriazko Arretarako Batzordea ere eratuta dago, azken hau da Berdintasunerako Zuzendaritzara heltzen diren indarkeria kasuez arduratzen dena.

2023an UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzara jakinarazitako indarkerietan gorakada izan da. Ondorengo taulan ageri dira artatutako kasuak:

	Kasu kopurua	Kaltetutako pertsonak		
		Ikasleak	TEKAZEL	IIP
<b>Indarkeria fisiko- psikologikoa</b>	6	6	0	0
<b>Sexuagatiko jazarpena (*)</b>	3	19	1	10
<b>Sexu jazarpena (*)</b>	12	39	0	0
<b>Indarkeria psikologikoa</b>	1	1	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>22</b>	<b>65</b>	<b>1</b>	<b>10</b>

(\*) Datu hauei dagokienez aipatu beharra dago hainbat kasutan sexu jazarpen edo sexuagatiko jazarpen kasu kolektiboek buruzkoak direla. Kasu hauetako batzuetan biktima bat edo bat baino gehiago jazarpen sexualeko biktima izan dira eta gainerakoak jazarpen ambientalekoak.

Taulako datuei begiratuta, nabaria da indarkeria kasuen gorakada UPV/EHU, salaketa kopurua bikoiztu baino gehiago egin da eta. Bedintasunerako Zuzendaritzatik irakurketa positiboa egiten da honen inguruan; izan ere indarkeria matxisten aurrean tolerantzia maila jeitsi egin da eta gero eta jende gehiagok laguntza eskatzen du egoera horretatik irteteko. Aipatu beharrekoa da, halaber, IIPen kasuan izandako gorakada; ikusten den bezala, orain arte oso kasu gutxi heltzen baitziren protokoloa aplikatzera. Azpimarratzekoa da, baita ere, sexuagatiko jazarpen kasuen gorakada; urte luzez ixilean eta, moduren batean, normalizatuta izandako kasuak orain hasi baitira azaleratzen.

#### - **INDARTU. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:**

Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloaren Atarikoan esaten denez, unibertsitatearen helburua da *unibertsitatean giro segurua mantentzea eta sustatzea UPV/EHU osatzen duten pertsona guztientzat, genero indarkerietatik at*. Era berean, azpimarratzen da *unibertsitateak ez du[ela] genero indarkerien inongo adierazpenik onartuko eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu[ela] jarrera eta portaera horiei aurre egiteko*. UPV/EHUrentzat genero indarkeriaren eremuan sartzen diren



jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, *unibertsitateak konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko.*

2023an programaren **V. edizioa eraman da aurrera** online formatuan eta 175 emakumek hartu zuten parte, 88 emakumek gaztelaniako taldean eta 87k euskarakoan. Programa 57 emakumek amaitu zuten balorazio oso positiboekin. Ikusten denez izen-emate kopurua altua bada ere, gero akreditazioetan dexenten jeisten da.

- **ERALDATZEN. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:**

Programaren helburu nagusia da abian jartzea gizonek kontzientzia hartzeko eta dagokien ardura beren gain hartzeko prozesu bat, eurekin zerikusi zuzena daukaten arazo honetan, genero indarkeriak prebenitzeko estrategia gisa.

Programa **gizonezko ikasleei bakarrik dago zuzenduta**, espazio bat sortzeko gizonek gogoeta egin dezaten beren genero sozializazioaz eta genero indarkerien aurrean duten jarrerez, eta beren erantzukizun eta inplikazioari buruzko erabakiez. Ikasleok UPV/EHUko edozein campusetakoak eta edozein mailatakoak izan daitezke.

2023an, Indartu programarekin batera, online eskaini da Eraldatzen programako III. edizioa non 42 gizonek izena eman dute eta 5k amaitu. Indartun bezala, Eraldatzen programan ere nabaria da izen emateetatik akreditazioetara dagoen beherakada eta beharrezkoa ikusten da UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzatik programa hauek eta berauen difusioa, eta konpromisoa gehien bat, sendotzeko beharra.

### 3.3.- Protokoloa, pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzekoa:

Pertsona trans eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzeko protokoloarekin UPV/EHUk bere konpromisoa adierazten du unibertsitateko kideen genero identitateari lotutako premiak asetzeko, eta bermatzeko genero identitatearen agerpen eta adierazpen askea, eta genero identitatean oinarritutako diskriminazio ororen desagerpena.

2023an 18 pertsonek eskatu dute izen-aldaketa protokolo hau aplikatuz. Urtetik urtera eskaera kopurua gehitzen da eta unibertsitate komunitatean protokolo hau jada ezaguna eta erabilia dela erakusten digu horrek.





### 3.4.- STEM graduak nesken artean sustatzeko batzordea:

UPV/EHUko Berdintasunaren III Planaren 3.2. helburua aintzat hartuz, hau da, zientzia eta teknologiarako bokazio goiztiarrak bultzatzea, bereziki emakumeen artean, Berdintasunerako Zuzendaritzak STEM Batzordea eratu zuen unibertsitatearen baitan eta lan ildo hau indartzen jarraitu da 2023an.

STEM Batzordea zientzia eta teknologiarako graduak eskaintzen dituzten unibertsitateko fakultateetako ordezkarienez osaturik dago, hain zuzen ere zentro hauetako ordezkarienez: Ingeniaritza Fakultatea, Arkitektura Eskola, Informatika Fakultatea, Kimika Fakultatea, Zientzietako eta Teknologia Fakultatea eta Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Batzorde horrek finkatutako ildoen arabera, STEM arloko zentroek bokazio goiztiarrak edo jakintza esparru honetan emakumeen lanak ikustarazteko egindako lanak batu eta bistaratzeko konpromisoa hartu du Berdintasunerako Zuzendaritzak. Helburu horrekin zuzendaritzako web orrian gune propio bat eman zaio espazio honi.

UPV/EHUko Plan Estrategikoan eta baita ere aurrera begira IV Berdintasun Planean STEM bokazio goiztiarrak bultzatzea unibertsitatearen lehentasun nabarmenetako bat da. Horren harira 2023ko otsailaren 11n (Zientziaren arloko Emakume eta Neskatoen arloko Eguna) egunerako hainbat fakultatetan prestatzen ari ziren jardunaldien informazio bilketa lana egin zen, Zuzendaritzaren webgunearen bitartez ekitaldi horiek ikusgarritasun handiagoa izan zezaten.


#### STEAM



**Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz**



**Facultad de Ciencia y Tecnología**



**Escuela de Ingeniería de Bilbao**



**Facultad de Informática**



**Facultad de Química**

Lan ildo honekin jarraituz ere beste hainbat ekimen eraman dira aurrera, hala nola,

- Gladys del Estal Sarirako Berdintasunerako Zuzendaritzak laguntza ematen du eta urtero, 2023an ere bai, ospatzen den ekitaldian parte hartzen du.



**1 Irudia: Gladys sariko irabazlea antolatzaileekin**

- Bilboko Metroko Emakume Zientifikoak Erakusketa. Inaugurazioa
- Emakumeak Zientzian 7. Ekitaldian Berdintasunerako Zuzendaritzak laguntza ere eman zuen, UPV/EHUko Informatika, Kimika eta Ingeniaritza Gipuzkoako campuseko zentroek elkarte horretako partaide izan daitezen eta STEM eta emakumea alorrean lanean jarrai dezaten. Ekitaldia, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna dela eta otsailaren 11n izaten da urtero.
- Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordetzarekin batera, Berdintasunerako Zuzendaritzak parte hartu du Bilboko Metroko Emakume Zientifikoak Erakusketa ibiltarian.
- Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko Udako Ikastaro bat antolatu du Hezkuntza Fakultatearekin batera. Ikastaroan garatutako gaiak berdintasunaren planeko lerro estrategikoarekin eta genero ikuspegiak eragiten duen arazoarekin zuen zer ikusirik: "Ciber-violencia en las relaciones de pareja entre jóvenes y adolescentes, consumo de pornografía y violencia sexual" (2023 ekainak 22 eta 23).

## 4. Unibertsitate hedakuntza

### 4.1.- Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea

UPV/EHUko organo kolegiatuen amaierako osaera orekatua (gizonak eta emakumeak) lortzea ahalbidetzeko zerrendak bultzatzen ari gara. Hori dela eta, hautagai zerrendek kasuan kasuko hauteskunde taldeari dagozkion kideen laurdenak edo gehiago bete ahal izango dituzte, eta, edozelan ere, gutxienez bi hautagai. Edonola ere, zerrendan %40 gutxienez emakumeak direla bermatuko da. Era berean, hautagai zerrendako lehen bi pertsonetako bat gutxienez emakumea izango da. Emakumeen presentzia adierazi den moduan bermatu ezin bada, hautagai zerrenda aurkeztearekin batera, baldintza hori betetzea eragozten duten arrazoiak argudiatu beharko dira. Hauteskunde Batzordeak argudio horiek UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari igorriko dizkio, eta hark hautagai zerrenda horren onarpenari buruzko txosten lotesle bat igorriko du, aurkeztutako hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatu baino lehen. Aipatutako txosten hori jaso bitartean, eraginpeko hautagai zerrenda prozesutik kanpo geratuko da behin-behinean (2011ko apirilaren 19ko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorren 5.4, 5.5 eta 5.6 artikulua).

Horrekin batera, Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko ikastegietako berdintasun batzordeen jarraipena egin, eta haiekin harremanetan egoten da, eta ekimen guztietan parte har dezaten bultzatzen du.

### 4.2.- UPV/EHUko bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren Kontziliazio Gida

UPV/EHUko Kontziliazio Gida uneotan, dauden neurriak islatzen baditu ere, dokumentu bizia da eta horren isla dira 2022an onartutako hainbat hobekuntza. UPV/EHUko Batzorde Intersektorialean habian jarritako negoziazio prozesuaren ondorioz unibertsitatean ordezkariak duten sindikatuek euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Horren ondorioz **UPV/EHUko Berdintasunerako Batzorde Intersektorialaren akordioa** onartu eta izenpetu zen **2022ko martxoaren 23an**, zeinetan Kontziliazio Gidaren gainean eginiko hainbat hobekuntza onartu ziren. Honen inguruko informazio guztia UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren web orrian dago eskuragarri.



Bestalde, 2023. urtean Berdintasunerako Zuzendaritzak mahai intersektorialean jarraitu du kontziliazioa eta erantzunkidetasuna uztartzeko emakume eta gizonen artean neurri berriak sustatzen. Era berean, lan egin du legealdian izandako hobekuntzak kontziliazio gidan barneratu daitezen.

### 4.3. Berdintasunerako Zuzendaritzaren lankidetzaren hainbat proiektuetan

Era berean, 2023an zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak hainbat entitaterekin proiektu desberdinetan hartu du parte, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

ERITALDIA	DATA	LEKUA
Nazioarteko Kongresua: "Emakumeak"	Urtarrila	Euskalduna Jauregian (Bilbo)
Género y Comunicación de la Ciencia	Otsaila	Iberdrola Dorrea. 29. Solairua (Bilbo)
Bilboko Metroko Emakume Zientifikoak Erakusketa. Inaugurazioa	Otsaila	Abandoko Metroan
El papel de la universidad ante la diversidad sexual y de género disidente, y su influencia en el mundo laboral (UGT)	Otsaila	Leioako Campusean
Aspegi Sariak 2023: Enpresari saria eta enpresa zuzendari profesionalari saria	Otsaila	Donostiako Aquariumean
Zirgariak sariak	Martxoa	BBK Aretoa Bilbo
Lan Harremanen eta Gizarte Langintza Fakultatea - Liburuaren aurkezpena	Martxoa	Arabako Campusa
Ekonomia, Enpresa eta Genero VII Jardunaldiak: Emakumeak eta kooperatibismoa	Martxoa	Bizkaiko Campusa
Emakunde sariak 2023	Maiatza	Gasteiz
Itelazpi Erakusketaren aurkezpena Bizkaiko Campusean	Maiatza	Bizkaiko Campusa
Bai bakarrik da bai Legeari buruzko mahai ingurua	Maiatza	Bizkaia Aretoa
XVIII Jardunaldiak RUIGEU	Maiatza	Valladolideko Unibertsitatea
UIK - Ciberviolencias entre jóvenes y adolescentes	Ekaina	Donostiako Miramar Jauregian
Alares Sariaren Ekitaldia	Ekaina	Madril
UIK - Emakunde: emakumeen lidergoa (Akademe programaren aurkezpena)	Ekaina	Donostiako Miramar Jauregian
2023-24 Ikasturtearen Hasiera Ekitaldia	Iraila	Gaseizko Letren Fakultatea
Emakumeak eta Kirola	Iraila	Guggenheim Museoa
Pornografia jardunaldiak	Urria	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
Mujer e ingeniería – Mentoring de Excelencia	Urria	Madril
UniSafe kongresua	Urria	Bizkaia Aretoa
CRUE Genero Politika	Urria	Valentziako Unibertsitate Politeknikoa
Taller formación UniSafe	Urria	Bizkaia Aretoa
Euskalit	Urria	Bizkaia Aretoa
Beldur Barik	Azaroa	Bilbo



Aipagarriak dira azken urteetan estatu eta europa mailan UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak izan duen presentzia, bai Alares fundazioaren eskutik, RUIGEU sarean edota europako Unisafe proiektuan. Guztietan interes bizia piztu dute UPV/EHUtik aurrera eramaten diren politika eta ekintzak berdintasunaren alde eta indarkerien aurka, gure unibertsitatea erreferente bihurtuz, bereziki genero indarkerien aurkako politiketan.

#### 4.4.- Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean

- **Martxoaren 8a:** Martxoaren 8ko 2023an ekitaldi akademiko instituzionala ospatu zen Gipuzkoako campuseko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean ospatu zen. Aurreko urteetan bezala antolakuntza UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren esku egon zen zuzenean eta streaming bidez guztira 130 pertsona baino gehiagok jarraitu zuen ekitaldia.

Azken edizioako ereduari jarraiki, sei emakume omendu ziren, bost irakasle ikertzaile, bakoitza jakintza esparru batetik, eta TEKAZELeko bat, guztiak berdintasunaren alde edo/eta feminismoan izandako ibilbide oparoagatik omendu ziren.

Jakintza arloa	Omendua
Gizarte eta Lege Zientziak	Maggy Barrere Unzueta
Zientziak	Mirari Antxustegi Bengoetxea
Arte eta Humanitateak	Mari Luz Esteban Galarza
Osasun Zientziak	Paz De Corral Gargallo
Ingeniaritza eta Arkitektura	Enkarni Gomez Genua
TEKAZEL	Lourdes Arrien Marina
In memoriam	Vicky Ateca Amestoy

Omenaldiaz gain, urtero bezala Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatu ziren.



**2 Irudia: Martxoak 8ko omendua**

- **UniDibertsitatea eguna:** 2023an ekitaldi akademiko instituzional honen III.en edizioa ospatu zen Arabako campuseko Letren Fakultatean. Edizio honetan, aurrekoetan bezalaxe, Empar Pineda sarietaz gain UniDibertsitatea film laburren lehiaketako sariak ere banatu ziren.



**3 Irudia: UniDibertsitatea eguneko sarituak eta omendua**

III. en edizioko omendua Fernando R. bartolome Garcia irakasle eta ikertzailea izan zen urte luzez LGTBI+ mugimenduan eginiko lanagatik. Sexu-dibertsitateko ikastaroko irakasle izan da hasieratik, Empar Pineda sariko epaimahaikide eta Empar taldeko kide aktiboa bere sorreratik.



Bestalde, hil berri zen Mikel Martín Conde ere omendu zen, urte luzez LGTBI+ mugimenduko kide eta militante izan zena.

Berdintasunerako Zuzendaritzak unibertsitatean burutzen diren ekintzak aniztasuna eta dibertsitatea bultzatzeko babestu egin ditu 2023an hainbat diru laguntza emanez (liburuak eta jardunaldiak – Gasteiz).

#### - UPV/EHUko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna (2023ko azaroak 25)

2023an ekitaldi akademiko instituzional honen III.en edizioa ospatu zen **Gipuzkoako campuseko Zuzenbide Fakultatean** azaroaren 22an. Generoko indarkerietan sakonduz *"Bakarrik Bai da Bai"* legea. *Indarkeriaren biktima diren emakumeak babesteko botere publikoek bete beharreko lege-esparru berria* mahai ingurua antolatu zen. Bertan espazio ezberdinetako ondorengo adituak izan ziren:

- Ana Isabel Perez Machio, UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko katedradun akreditatua.
- Maider Galardi Fernandez de Aguirre, UPV/EHUko feminismo- eta genero-azterketen ikertzailea.
- Beatriz Ilardia, genero eta sexu indarkerietan abokatu aditua
- Edurne Agirrezabala Goñi, Donostiako Udaleko Prebentzio, Haurtzaro eta Familia Zerbitzuaren arduraduna.



**4 Irudia: A25eko mahai inguruko kideak**

Ekitaldia streaming bidez ere zabaldu zen eta, orotara, 30 pertsona inguruk jarraitu zuten.



#### **4.5.- UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan eta ekitaldietan**

2023an zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak eta UPV/EHUko berdintasunerako politikek izan dituzten agerraldiak komunikabideetan (Ser Irratian, El País-en, EITBn) kokatu dira indarkeria, emakumeak zientzian eta emakume akademikoen lidergoan. Agerraldi hauek izan duten oihartzuna gizartean gure unibertsitatea berdintasunaren alde lan egiten duen eraginkortasunaren seinale izan da.

Horretaz gain, 2023an zehar UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak parte hartu du hainbat jardunaldi, foro eta ekitalditan, eta guztietan hedatu da unibertsitateak berdintasuna eta aniztasunaren alde duen konpromisoa. Hala nola, RUIGEU eta CRUEko jardunaldietan Valladoliden eta Valentzian, UniSafe kongresuan Bilbon, Alaresen Sarian Madrilen, Aspegi Foroa delakoan eta Emakundek Maskulinitate berriaren inguruan antolatutako nazioarteko kongresuan, foro batzuk aipatzearren.





## 5. Proiektuak eta eginkizunak

2023an, aurreko urteetako bideari jarraiki, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak indartu egin du bere presentzia Estatuko zein Europako unibertsitateekin batera martxan dituen Enlight eta UniSafe proiektuetan. UPV/EHUrentzat berebiziko garrantzia dauka berdintasun politiketan saretuta lan egiteak barrura zein kanpora begira, estatu naiz Europa mailan.

Ildo horretan aipatu beharra dago Berdintasunerako Zuzendaritzak Enlight aliantza ordezkatu zuela FOREUP2 aliantza sarean, Akademe Programa aurkeztuz (2023ko irailaren batean).

Berdintasunerako Zuzendaritzaren beste lanetako bat UPV/EHUko IV.en berdintasun plana diseinatu eta sortzea ere bada. Aldaketa normatiboak medio, UPV/EHUko diagnostiko bat egin da unibertsitate barruko aditu talde bati lana esleituta. UPV/EHUren tamaina eta berezitasunak kontutan hartuta hasieratik ezinbestekotzat jo zen etxea ondo ezagutzen zuten adituek egin beharreko lana zela. Hori dela eta, soziologia, ekonomia, lan harremanetako adituen lan-taldea eratu eta eurek arduratu ziren datuak era kuantitatibo eta kualitatibo batetan lantzeaz diagnostiko osoa izan arte. Datuen bilketa Berdintasunerako Zuzendaritzaren bitartez burutu zen. Aipatu beharra dago, halaber, aditu talde horrek Estatuko Ministeritzarako 52 unibertsitateen soldata arrakalaren inguruko ikerketa burutu zuela, bere lanak erantzun ona eta interes handia jasoaz.

Era berean, Zuzendaritzak sortutako lankidetza proposamen guztietan parte hartu du, berdintasunaren eta aniztasunaren inguruan bere ekarpenak eginez. Horren ildotik aipatu behar da Chileko Valparaisoko Berdintasun Zuzendaritzako ordezkari baten estantzia Zuzendaritzan 2023ko azaroaren 28tik abenduaren 7ra arte.